

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren materialen eskuragarritasuna bermatzeko routerrak banatzen dizkigun hornitzaileekin aliantza sortuko dugu. Bestalde, gure produktua merkaturatzeko eta negozio-eredua optimizatzeko, gure arlo berean egongo den enpresa batekin aliatuko gara; "koopetentzian" oinarrituz.

Geuk, 2 modutara egingo dugu produktuaren salmenta. Alde batetik, gure produktuak telekomunikazioko enpresa bati emango dizkiogu beraiek saldu ditzazten eta honela, produktua merkatuan errazago sartzea lortuko dugu. Bestetik, guk geuk salduko ditugu produktuak guk sorturiko web-orrialde batean. Horri esker, munduko edozein pertsonak erosi ahal izango du gure produktua bere etxetik.

